# ANTZERKIA
& musika

## UDABERRIA 94 PRIMAVERA



3

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

KULTUR
UDAL
PATRONATUA

# EL CHIVATO

## VICTORIA EUGENIA

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "FELIZ CUMPLEAÑOS, Sr. MINISTRO" | 4 | 4 | 876 | 219 | 1.170.000 |
| "DESNUDOS" | 3 | 3 | 693 | 231 | 865.000 |
| "ANFITRION" | 3 | 3 | 347 | 116 | 395.600 |
| "ESCORIAL" | 3 | 3 | 387 | 129 | 445.800 |
| "NOSFERATU" | 3 | 3 | 608 | 203 | 592.300 |
| "Y EL BUQUE SIGUIÓ NAVEGANDO" | 1 | 1 | 154 | 154 | 161.700 |
| "TRISTANA" | 2 | 2 | 923 | 462 | 1.029.000 |
| "BALLET DE KIEV" | 1 | 1 | 968 | 968 | 1.925.500 |
| **TOTAL** | **20** | **20** | **4.956** | **310** | **6.584.900** |

| MUSICA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| CARLOS CANO | 1 | 1 | 1.061 | 1.061 | 2.060.000 |
| ALBERT PLA | 1 | 1 | 364 | 364 | 483.000 |
| **TOTAL** | **2** | **2** | **1.425** | **713** | **2.543.000** |

## LUGARITZ

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "RIZANDO LAS ONDAS" | 2 | 1 | 397 | 199 | 258.800 |
| "AZUCAR Y VINAGRE" | 2 | 1 | 133 | 67 | 79.400 |
| "VARIACIONES" | 2 | 1 | 333 | 167 | 223.800 |
| "TARDE DE SABADO" | 1 | 2 | 174 | 174 | 107.300 |
| **TOTAL** | **7** | **5** | **1.037** | **148** | **669.300** |

## HAURRENTZAKO ANTZERKIA - TEATRO INFANTIL
## LUGARITZ

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "MARRATXO" | 1 | 1 | 203 | 203 | 58.350 |
| "AGURO" | 1 | 1 | 76 | 76 | 22.800 |
| "BANABA ZIRKOA" | 1 | 1 | 220 | 220 | 65.700 |
| "IPURTARGI" | 1 | 1 | 178 | 178 | 51.900 |
| **TOTAL** | **4** | **4** | **677** | **169** | **198.750** |

## ANTZOKI ZAHARRA - PRINCIPAL

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "MAMUAK" | 2 | 2 | 479 | 239 | 239.500 |
| "JAKE MATE" | 2 | 2 | 161 | 81 | 65.100 |
| "TXOTXONGILO" | 2 | 2 | 834 | 417 | 417.000 |
| "MARRATXO" | 2 | 2 | 231 | 116 | 115.500 |
| "NONDIK" | 1 | 1 | 83 | 83 | 41.500 |
| **TOTAL** | **9** | **9** | **1.788** | **187** | **878.700** |

# VICTORIA EUGENIA



## 9 Abril

**"Carmina Burana"** de Carl Orff. **Dirección:** José Antonio Sainz. Con el Orfeón Donostiarra, Mª José Sánchez, Carlos Mena, Wolfgang Newerla y Opus III Percussion Ensemble. **Hora:** 20,00h.

# LICEUREN ALDEKO EMANALDI MUSIKALA

Donostiako Orfeoia, José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean, joan den urtarrilak 31ean sute batek suntsitu zuen Bartzelonako Liceuren alde Victoria Eugenian ospatuko den emanaldiaren protagonista nagusia izango da. Donostiako Kultur Udal Patronatuak bultzatutako ekitaldi honek Donostiako Orfeoiari nazioarteko ospea eskeini dion "Carmina Burana" berriro ere gozateko aukera emango die zaletu guztiei. Carl Orff (1895-1982) musika egile alemandar honen obrak Mª José Sánchez (sopranoa), Carlos Mena (kontratenorea) eta Wolfgang Newerla (baritonoa) izango ditu bakaralri gisa, eta Josu Oquiñena eta Patxi Aizpiri pianojole.

El Orfeón Donostiarra, bajo la dirección de José Antonio Sainz Alfaro, será el principal protagonista de la gala musical que acogerá el Teatro Victoria Eugenia en solidaridad con el Liceo barcelonés, destruído el pasado 31 de enero a causa de un incendio. La iniciativa, promovida por el Patronato de Cultura Municipal de San Sebastián, permitirá a los aficionados a la lírica disfrutar de una "Carmina Burana" que ha concedido a la formación vocal donostiarra un gran prestigio internacional. La obra del compositor germano Carl Orff (Munich 1895-1982) contará con Mª José Sánchez (soprano), Carlos Mena (contratenor) y Wolfgang Newerla (barítono) como solistas, y Josu Oquiñena y Patxi Aizpiri al piano.



# 18 Abril

**"Marina"** (Zarzuela reconvertida en ópera) de Pascual Emilio Arrieta
**Dirección:** Tomás Aragüés. Con la Orquesta de Alumnos del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián y la Agrupación Lírica Itsaso.
**Hora:** 20,00h.

## PASCUAL EMILIO ARRIETAREN OMENEZKO OPERA

Donostiako Musika Udal Kontserbatorioko Orkestra eta Itsaso talde lirikoak Pascual Emilio Arrieta (Puentelarreina 1823-Madrid 1894) musika egile nafarra omenduko dute, nazioarteko osperik handiena eman zion "Marina" izeneko zarzuela birtaularatuko duen kontzertu baten bidez. Francisco Campodrónen letrekin, opera gisa eskeiniko den obra honek maitasun kontu berezi horiek berreskuratuko ditu, Rosa Mª Gutierrez sopranoa (Marina) eta Ricardo Jiménez tenorea (Jorge) pertsonaia nagusiak direlarik eta Javier González Sarmiento pianojolea, ahaztu gabe Tomás Aragüés eta Javier Apeztegiak burutzen duten zuzendaritza lana.

La Orquesta de Alumnos del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián y la Agrupación Lírica Itsaso recordarán al compositor navarro Pascual Emilio Arrieta (Puentelarreina 1823 -Madrid 1894), en un concierto que recuperará la zarzuela que mayor renombre internacional concedió al autor, "Marina". Con letra de Francisco Campodrón la obra revivirá, en clave de ópera, su particular enredo de amores, con la soprano Rosa Mª Gutiérrez (Marina) y el tenor Ricardo Jiménez (Jorge) en los principales papeles, además del pianista Javier González Sarmiento, sin olvidar a Tomás Aragüés y Javier Apeztegia en la dirección.






# 22-23-24 Abril

**TRAPU ZAHARRA. "Tarde de sábado". Dirección:** José Mª Ocio. Con Santi Ugalde, Mila Espiga y Oscar Gómez. **Hora:** 20,00h.

## ZER HOBERIK "LARUNBAT ARRATSALDE BAT"ERAKO?

Trapu Zaharra errenteriar konpainia formato handira itzultzen da, "¡Oído cocina!" lanarekin izandako arrakastaren ondoren. Bere proposamen berria Jose Mª Ocio donostiarrak idatzi eta zuzendutako "Tarde de sábado" izeneko komedia da. Senar-emazte bikote batek Larunbat arratsalde batez banketxeren batean lapurreta egitea erabakitzen du. Denak itxita egon, ordea, eta, helburua aldaturik, antzoki batera jotzen dute. Paper artean bildutako eskopeta zaharra lagun, abangoardiako obra ulertezina ikusten ari den jendearekin batera eseritzen dira, antzokiko dirubilketa lapurtzeko egokieraren zai. Trapu Zaharrak umorearen aldeko apustua egiten du, eskaintzen dielarik ikusleei ikuskizun bat non jendea bikote lapur-ikasleare bahituri bihurtuko den. Santi Ugalde, Mila Espiga, Oscar Gómez (Legaleón), Edurne Rodríguez (Legaleón) eta Paul Berrondo dira "Tarde de sábado" obrako antzezleak.

La compañía renteriana Trapu Zaharra vuelve al formato grande después del éxito obtenido con "¡Oído cocina!". Su nueva propuesta es "Tarde de sábado", una comedia escrita y dirigida por el donostiarra José Mª Ocio. Un matrimonio se decide una "Tarde de sábado" a robar un banco, pero se encuentran con todos cerrados y tienen que sustituir su objetivo por un teatro. Acompañados por una vieja escopeta envuelta en papeles, se sientan entre el público de un incomprensible espectáculo de vanguardia, a la espera de la mejor oportunidad para robar la recaudación de la taquilla. Trapu Zaharra apuesta por el humor y sirve al espectador un montaje en el que se llega a convertir en rehén del matrimonio aprendiz de ladrón. Santi Ugalde, Mila Espiga, Oscar Gómez (Legaleón), Edurne Rodríguez (Legaleón) y Paul Berrondo son los intérpretes.



## 4-5 Junio

**ELS JOGLARS. "El Nacional". Dirección:** Albert Boadella. Con Jesús Agelet, Begoña Alberdi, Josep Fontseré y Ramón Fontseré. **Hora:** 20,00h.

# ARTE-ASKATASUNAREN ALDEKO KANTUA, ELS JOGLARS ETA ALBERT BOADELLAREN ESKUTIK

Albert Boadella Els Joglars taldeko zuzendariak farandularen munduaren aurka zuzentzen ditu, oraingo honetan, bere gezi zorrotz-kritikoak; izan ere, "El Nacional" antzezlanean antzerki-lanbidea baita, hain zuzen, Boadellaren erasogunea. Obrak gogor kritikatzen ditu antzerki-mundua inguratzen duten burokrazia eta protekzionismoa, funtzionariotzearen aurkako sormen eta adierazpen-askatasuna, berriz, goresten dituelarik. Kataluniarrek seko salatzen dute subentzio-politika bat antzerkia hondatzen ari dena (horrela dio behinipehin, ikuskizun honetako arduradun nagusiak). Istorioa ixtear dagoen El Nacional izeneko antzoki batean kokatzen da; bertako jarlekuzain zahar batek egitate erraldoi bati ekin dio: "Rigoletto" eszenaratzeari, alegia, horretarako hiriko bazter bazterrenetan bildutako aktore-"troupe" batez baliatu beharko badu ere.

El director de Els Joglars, Albert Boadella, dirige sus mordaces y críticos dardos teatrales contra el mundo de la farándula. El oficio teatral se convierte en el centro de los ataques de Boadella en "El Nacional". La obra es una dura crítica a la burocracia y al proteccionismo que rodean el teatro, un canto a la libertad del artista, a la libertad de creación y de expresión frente al funcionariado artístico. El montaje de la reconocida compañía catalana es una visceral respuesta ante la política de subvenciones que está acabando con el teatro, por lo menos así lo afirma el principal responsable de este espectáculo. La historia que narra la obra se sitúa en un viejo teatro a punto de cerrarse El Nacional, donde un anciano acomodador se embarca en la odisea de poner en escena "Rigoletto", aunque tenga que ser a través de un "troupe" de actores recogidos en los lugares más insólitos de la ciudad.





## 15, 16 y 17 Junio

**"Os dejo la lluvia"** de Andrés Ruiz. **Dirección:** Félix Belencoso. Con Trinidad Rugero, Raúl Hernández, Arturo Amez y Javier Bueno. **Hora:** 20.00 h.

# DONOSTIA HIRIA SARIAREN ALDIA

ACAE antzerki-produkzio etxe eta aktore-trebakuntzarako eskola madrildarrak "Os dejo la lluvia" Donostia Hiria Antzerki Sariaren azken edizioa irabazitako obra estreinatuko du Victoria Eugenia Antzokian. Madrilen bizi den Andrés Ruiz sevillarrak edozein antzerkigileren ametsa lehen aldiz gauzatua ikusi ahal izango du, berak sortutako lana eszenategitaratua ikustea, alegia. Félix Belencosok zuzuzendutako bere obra hau, Trinidak Rugerok jokatzen duen Extremadurako andre tabernari baten oroitzapenetan zeharko gerraondoko txango bat da. "Os dejo la lluvia", heriotza eta zoritxarra prostituzioarekin eta ustelkeriarekin batera doazen istorio bat.

La productora teatral y escuela de formación de actores madrileña ACAE estrenará en el Teatro Victoria Eugenia la última obra ganadora del Premio de Teatro Ciudad de San Sebastián, "Os dejo la lluvia". El sevillano afincado en Madrid Andrés Ruiz verá hecho realidad el sueño de cualquier dramaturgo, la escenificación de su creación, honor del que todavía no ha tenido el placer de disfrutar. Su obra, dirigida en escena por Félix Belencoso, es un paseo de posguerra por las memorias de una tabernera de Extremadura, interpretada por Trinidad Rugero. Una historia donde muerte y desgracia se cruzan con prostitución y podredumbre.

# VICTORIA EUGENIA

## 22-23-24 Junio

**LAS VENENO "Air Veneno". Dirección:** Ferrán Rañé. Con Arancha de Juan, Gracia Olayo y Pepa Giralte. **Hora:** 20,00h

## "POZOINEZ" BETERIKO HEGAZKINALDIA

Hiru emakume "leherkor" hauen ikuskizun berria. Oraingo honetan, gezur alaitsu eta pozointsua aurkezten digu, eta bertan, den-dena, hegazkinetik hasita, tripulazioa, bidaiariak, bidaiaren gora beherak, ikuskizuna bera, dena ANTZERKI-IKUSKIZUNaren erritmoan buruturiko gezurra da, engainatu eta pozoinduta izatea plazer handiko zerbait gertatzen delarik.



Un nuevo espectáculo "venenoso" de este trío de mujeres explosivas, en esta ocasión, presentándonos una gran mentira festiva y envenenada, donde todo, desde el avión, los tripulantes, los pasajeros, las incidencias a bordo, el propio show, todo, es una gran mentira a ritmo de TEATRO-ESPECTACULO, donde ser engañado y envenenado representará un gran placer.

# BIARRITZ

## 27 Abril - 1 Mayo

**FIESTAS MUSICALES DE BIARRITZ**

**Homenaje a Pablo Sarasate**

(Palacio de Festivales, Casino Bellevue e Iglesia Santa Eugenia)

## PABLO SARASATE MUSIKARIARI OMENALDIA

Biarritz herriak Pablo Sarasate bibolinjole eta konpositore ospetsuari (Iruñea 1855 - Biarritz 1908) eskainiko dio urtero antolatu ohi duen Musikaldiaren aurtengo edizioa. Egitaraua sei kontzertuz osaturik dago, zeinetan Aita Donostia, Rossini, Debussy, Mozart, Brahms eta besteren obrak joko baitira. Apirilaren 27ko inaugurazio-kontzertuko protagonista Sarasateren konposizioak izango dira hain zuzen, Pablo Sarasate Orkestrak eta Tedi Papavrami bibolinjoleak emanak.

El concierto inaugural, el 27 de abril, tendrá como protagonista a las composiciones de Sarasate, interpretadas por la Orquesta Pablo Sarasate y el violinista Tedi Papavrami. Los pianistas Aregerich y Rabinovich actuarán el día 28, mientras que las sopranos Inva Mula-Tchako y Cecilia Gasdia ofrecerán los recitales del día 29. El Orfeón Pamplonés cantará la jornada del día 30 y la clausura, el primero de mayo, correrá cargo de una de las estrellas de la Opera de París, Patrick Dupond.

# LUGARITZ

### CICLO MONOLOGOS

## 15 Abril

**L'OM. "Chiquilladas". Hora:** 20,00h.

## "CHIQUILLADAS", RAYMOND COUSSE BERRIZ ERE

Raymond Cousse antzerkigile frantziarra ezagun da oso "Estategia para dos jamones" bere obra arrakastatsua medio, areago Juan Echanovek "El cerdo"ren bitartez arront ezagutarazi duenetik. Oraingo honetan, bere beste obra bat da protagonista, "Chiquilladas" bakarrizketa, L'OM-Compañía de Gestión Teatral de Valencia taldeak ekoiztu eta egilearen beraren zuzendaritzapean burutu dena. Santiago Sánchez da, inguratzen duen gizartearen gainetuen bitartean, plazan jolasten ko bere inpresioak kontatzen diari den haurraren rola jokatzen duena.



El autor teatral francés Raymond Cousse es de sobra conocido por su exitoso montaje "Estrategia para dos jamones" -obra popularizada últimamente por Juan Echanove con "El cerdo"- pero en esta ocasión es otra obra suya la protagonista, "Chiquilladas", un monólogo producido por el grupo L'OM-Compañía de Gestión Teatral de Valencia, que ha contado con la dirección de su propio autor. Santiago Sánchez interpreta al niño que juega en la plaza de un pueblo, mientras cuenta sus impresiones de la sociedad que le rodea.

### CICLO MONOLOGOS

## 6 Mayo

**AGERRE TEATROA. "Molly Bloom". Hora:** 20,00h.

## JAMES JOYCE, MOLLY BLOOM ETA AGERRE TEATROA

Agerre Teatroak "Molly Bloom" aurkezten digu, James Joyce idazle irlandarraren "Ulises" eleberriko azken atalean oinarrituz moldatutako bakarrizketa. Maite Agirre aktoresak Marion "Molly" Bloom kantariaren rola jokatzen du. "Molly" Bloom hau bere bizitzaz gogoeta egiten duen emakume bat da, bere frustrazioez, bere irrikez eta bestez inongo inhibizio moralik gabe hitzegiten diguna. Laburketa batzuk gora behera jatorrizko testua erabat errespetatzen duen obra honen plastika-arloko lana Koldobika Jauregi gipuzkoarraren zuzendaritzapean burutu da.



Agerre Teatroa presenta su montaje "Molly Bloom", un monólogo extraído del último capítulo de la novela "Ulises" del escritor irlandés James Joyce. La actriz Maite Agirre interpreta a la cantante de conciertos Marion "Molly" Bloom, una mujer que reflexiona sobre su vida y que habla, sin inhibiciones morales, sobre sus frustraciones, aspiraciones... La obra respeta al máximo el texto original, a pesar de algunas reducciones, y cuenta en la dirección plástica con el escultor guipuzcoano Koldobika Jauregi.

## LUGARITZ

## CICLO MONOLOGOS

### 10-11 Junio

**COMPAÑIA RAFAEL SAN MARTIN.**

**"Misterio bufo". Hora:** 20,00h.

### "MISTERIO BUFO": DARIO FO ETA ERTAROKO JUGLAREAK



Rafael San Martín aktoreak ixten du bakarrizketa-zikloa, Darío Fo egile italiarraren antzezlan homonimoan oinarrituriko "Misterio bufo" muntaiarekin Ertaroko juglareek antzeztutako testuak hartu eta moldatuz, ikuskizunak garai hartako kulturarekiko bertopaketa eskaintzen digu. Rafael San Martín da juglarea, Santiago Bolado eta La Caraba Teatrok gazteleratutako obra honen mezu satirikoak helarazten dizkiguna.

El actor Rafael San Martín cierra el ciclo de monólogos con el montaje "Misterio Bufo", basado en la obra homónima del brillante autor italiano Darío Fo. El espectáculo es un reencuentro con la cultura medieval, mediante la adaptación de textos que eran representados por los juglares de la Edad Media. Rafael San Martín interpreta al único juglar de la producción, un personaje que transmite los satíricos mensajes escritos por Fo, traducidos al castellano por Santiago Bolado y La Caraba Teatro.

## EUSKAL ASTEA

### 22 Abril

**BEDEREN I. "Argirik piztu gabe". Hora:** 20,00h.

### BEDEREN I ETA SEXUA

Bederen I donostiar antzeztalde ezagunak sexua eta Euskal Herria gaitzat hartuta burutu du "Argirik piztu gabe" bere azken muntaia, Patxi Santamariak zuzendu eta Maribi Arrietak eta Xabier Agirrek jokatutako umorezko antzezlana dena.



Beste aldietan zenbait obra klasiko moldatu eta konpainiatik kanpoko zenbait zuzendarirengana jo izan duen Bederen I taldeak guztiz berea den muntaia baten aldeko apustua egiten du oraingo honetan.

La conocida compañía donostiarra Bederen I toma el tema del sexo en Euskadi como base para su último montaje "Argirik piztu gabe". Un humorístico espectáculo dirigido por Patxi Santamaría e interpretado por Maribi Arrieta y Xabier Agirre. Primera apuesta de Bederen I por un montaje propio en su totalidad, después de haber adaptado obras clásicas o recurrir a directores externos a la compañía.

## HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

## T. PRINCIPAL

### 17-24 Abril

**HIKA. "Aguro". Hora:** 12,00h.

### DENOK "HIKA" TALDEAREN SORGIN LAPURRAREN AURKA

Umorezko abentura batekin, "Aguro", aurkezten zaigu Hika taldea Antzoki Zaharrean. Neska gaztetxo bat bidaia batean abiatzen da, ortzadarreko margoak lapurtzen dituen sorginari aurre egitearren. Bere kasako abiatzea, ordea, kuttunen duen musikaren erritmoan, "rap"enean, egiten baitu. Garbi Losadak zuzenduriko euskarazko ikuskari hau Agurtzane Intxaurragaren ipuin batean oinarriturik dago.



Hika se presenta en el Teatro Principal con una humorística aventura, "Aguro", que obliga a una joven a emprender un viaje para enfrentarse con la bruja ladrona de los colores del arco irirs. La chica se decide a lanzarse tras los pasos de la bruja, eso sí, al ritmo de su música favorita, el "rap". El espectáculo ha sido dirigido por Garbi Losada y está basado en un cuento deAgurtzane Intxaurraga.

## LUGARITZ

### 29 Abril

**TAUNTAUN - CIA DETITERES.**

**"Lam eta Lorea". Hora:** 18,00h.

### "LAM ETA LOREA", TAUN TAUNEN LURRALDE IMAJINARIOA

Taun Taun Bergarako txotxongilo-konpainiak "Lam eta Lorea" bere bigarren muntaia aurkezten digu. Gaztetxoei zuzenduriko ikuskizun honetako istorioa ertaroko alegiazko herrixka batean garatzen da: dena aldarazten duten haize batzuk medio, herrixka hartan ezarririko ordena arriskuan dago. Nahaspila horretatik askatzeko irtenbidea lore batean datza, "Lameko lorean", alegia. Bergarako laukoteak, zenbait ikuskizun aurkeztuz Argentinatik egindako jiratik etorri berria dagoen honetan, "Lam eta Lorea" txotxongilo-lana dakarkigu Lugaritza.

La compañía de títeres bergaresa Taun Taun presenta su segundo montaje, "Lam eta Lorea". La historia de este espectáculo, dirigido a los espectadores más jóvenes, se desarrolla en un poblado medieval imaginario, donde el orden establecido es puesto en peligro por unos vientos que alteran todo. La solución al desbarajuste está en una flor, "La flor de Lam". El cuarteto bergarés recupera "Lam eta Lorea", en euskera, para Lugaritz, recién llegado de una gira por Argentina con otras de sus producciones.

# HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

LUGARITZ

## 13 Mayo

### LOS DUENDES."La bella durmiente". Hora: 18,00h.

### "LA BELLA DURMIENTE"REN BERTSIO KOMIKOA

Los Duendes taldea, duela 26 urte sortutako konpainia valentziar beteranoa, Antiguora dator, Grimm anaien "La bella durmiente" ipuin ezagunaren bertsio komiko bat berarekin dakarrela. Obran zehar "muppets" ezagunak ikusteko aukera izango dugu. "Muppets" hauek duela urte batzuk, "Los Teleñecos" edo "Fragel Rock" bezalako telesailak medio, sona handia hartu zuten marioneta haien gisakoak dira. Izan ere, Los duendes taldeak Jim Hensonek programa haietarako sortutako ideia jaso eta bere premietara egokitu egin baitu "La bella durmiente" ikuskizun honetan.



Los valencianos Los Duendes -veterana compañía nacida hace 26 años- llegan al Antiguo con su cómica versión del popular cuento de los hermanos Grimm "La bella durmiente". La adaptación es llevada adelante por el grupo de marionetas con sus reconocidos "muppets", aquellos títeres popularizados hace unos años por las series de televisión "Los teleñecos" o "Fragel Rock". Los Duendes recogen la idea creada por Jim Henson para aquellos programas y la adaptan a sus necesidades en "La bella durmiente".

LUGARITZ

## 24 Junio

### EL DUENDE DEL GLOBO.

### "El encuentro mágico con los duendes". Hora: 18,00h.

### TOPAKETA MAGIKOA IRATXOEN MUNDUAREKIN



"El duende del globo" konpainiak iratxoen mundua bertatik ezagutzeko egokiera eskaintzen die gaztetxoei, "El encuentro mágico con los duendes" antzezlanaren bidez. Haurrek iratxo, sorgin eta beste horrelako lagunekin harremana izateko parada izango dute. Gaztetxoek iratxoen segizio magikoan eta haien jokuetan parte hartu ahal izango dute, euren abestiak abestuko dituzte eta euren txotxongiloek kontatutako ipuinez gozatzeko aukera ere izango dute.

La compañía "El duende del globo" ofrece la oportunidad a los más jóvenes de conocer de cerca el maravilloso mundo de los duendes, gracias al montaje "El encuentro mágico con los duendes". El público infantil es presentado a los duendes, brujas y otros amigos de "El duende del globo". Los más jóvenes tendrán ocasión de integrarse en el séquito mágico de los duendes, así como unirse a sus juegos, cantar sus canciones y disfrutar de varios cuentos narrados por sus marionetas.

# MUSIKA

VICTORIA EUGENIA

## 12 Abril

### FLACO JIMENEZ. Hora: 20,30 h.

### FLACO JIMENEZ TEXATAR FESTAZALEAREKIKO TOPAKETA

Flaco Jiménez Estatu Batuetatik datorkigu, bere estilo bereziarekin. Berezitasun honek ekarri die, hain zuzen, nola berari hala bere akordeoiari nazioarteko aitormena, bai eta Ry Cooder nahiz Bob Dylan bezalako artisten estimua ere. "Parteners" bere azken lanarekin datorkigun artista honek festagiro nabarmeneko soinuak eskaintzen ditu, bere sustraiak eta rockaren arteko biderdian, musika latindar eta anglosaxoiarren bidegurutzean daudenak.



Flaco Jiménez llega desde Estados Unidos, con el particular estilo que ha permitido a su figura y a su acordeón alcanzar un destacado reconocimiento internacional, reclamado por artistas como Ry Cooder o Bob Dylan, entre otros. "Parteners" es el último disco de este tejano que ofrece unos sonidos de marcado carácter festivo, a medio camino entre las raíces y el rock, entre lo latino y lo anglosajón.

VICTORIA EUGENIA

## 19 Abril

### AMANCIO PRADA "Emboscados". Hora: 20,00 h.

### AMANCIO PRADAREN POESIA KANTATURAKO GARAIA




"Emboscados" Amancio Prada Leongo trobadorearen azken lanaz gozatzeko aukera eskainiko zaigu Victoria Eugenian. "Cántico Espiritual"aren egileak musika bihurtutako bertsoek El Bierzoko juglarearen doinu sentikor eta erromantikoa emango diote kontzertuari. Bere azken konposizioek forma ematen diote zortzi mugimendutan banatzen den eta basoko misterioetan barna bidaiatzen duen poema luzeari.

La última obra del trovador leonés Amancio Prada, "Emboscados", tomará vida en el teatro Victoria Eugenia. Los versos hechos música del autor de "Cántico espiritual" ofrecerán al concierto el aire sensible y romántico del juglar de El Bierzo. Sus últimas composiciones dan forma a un largo poema, dividido en ocho movimientos, que viaja por los misterios del bosque.

# MUSIKA



## VICTORIA EUGENIA

### 4 Mayo

**MALEVAJE**.

Presentación del disco **"Va cayendo la gente al baile"**.
Con Antonio Bartrina, Jorge Orlando Lema, Guadalupe Sánchez,
Fernando Gilabert, José Luis Lopez, José Amador Pablo y Luisa Merino.
**Hora:** 21,00 h.

## MALEVAJEREN BEREZKO TANGOAK HELDU DIRA

"Va cayendo la gente al baile" Malevaje talde madrildarraren seigarren elepea da. Tangoa da ekarpen berri honen osagai nagusia, baina ez dira falta bertan rumbak, milongak edo habanerak. Antonio Bartrinak eta lagunek euren errepertorioan zeharkako ibilaldia eskainiko digute, tangoarekiko pasio bereziaz betea. Eta puristenek berezitasun hori kritikatu izan badiote ere, kantariak bere aukera defendatzen du: "Zergatik tangoa hemen egin ez, Japonen flamenco egiten badute".

"Va cayendo la gente al baile" es el sexto elepé de los madrileños Malevaje. El tango es el principal componente de esta entrega, aunque no faltan rumbas, milongas o habaneras. Antonio Bartrina y sus compañeros ofrecerán un paseo musical por su repertorio, marcado por el amor al tango, una pasión que ha sido criticada por los más puristas, aunque el vocalista la defiende: "Por qué no hacer aquí el tango, si en Japón se hace flamenco".

# LOS JUEVES DEL PRINCIPAL

### 14 Abril

**LOS ESPECIALISTAS. Hora:** 21,00 h.

## "ERREBOTATUZ" DATOR LOS ESPECIALISTAS TALDEAREN POP-A

Los Especialistas zaragozar hirukoteak "Vapor" izeneko bere bigarren bilduma aurkeztuko digu. Honen aurreko singleak, "Rebotando", txoko bat lortu die emisora komertzialetan gehien entzuten diren musika-taldeen zerrendetan. Santiago del Campok (ahotsa), Fernando de la Figuerak (gitarrak) eta Ramón Marcének (gitarrak) beren apustu popzalea erakutsiko digute, Karibe, Magreb eta Mediterranioko soinu-zantzuak dakartzana.



El trío zaragozano Los Especialistas presentarán su segundo álbum, "Vapor". El primer single de la entrega, "Rebotando", les ha permitido hacerse un lugar en la listas de conjuntos más escuchados de las emisoras comerciales. Santiago del Campo (vocalista), Fernando de la Figuera (guitarras) y Ramón Marcén (guitarras) darán a conocer su apuesta "popera" con influencias caribeñas, magrebíes, mediterráneas...

### 5 Mayo

**ANTONIO VEGA. Hora:** 21,00 h.

## ANTONIO VEGA, "ESE CHICO TRISTE Y SOLITARIO", JENDAURREAN BERRIRO

Antonio Vega abeslari madrildarra agertokietara itzultzen da, elepe berria, bere karrerako hamargarrena, besapean duela. Estatuko pop musikako irudi mitiko honek Nacha Pop-ekin batera abiatu zen, 1980an, baina 1991ean bakarkako abenturan murgildu zen, testu intimistagoak egiten zituela. Duela gutxi, bere abestien bertsioez osaturik, "Ese chico triste y solitario" diska paratu dute bere omenez Los Secretos, Cómplices, Rosendo eta beste hainbat taldeek.

El cantante madrileño Antonio Vega vuelve a los escenarios, con nuevo elepé bajo el brazo, el décimo de su carrera. Figura mítica de la música pop estatal, comenzó su andadura, en 1980, con Nacha Pop, aunque a partir de 1991 tomó el camino de la aventura en solitario, con unas intimistas letras, versioneadas recientemente por Los Secretos, Cómplices, Rosendo... en el disco en su homenaje "Ese chico triste y solitario".

# ANTZERKIRA ABONATU ZAITEZ

Eta honako onura hauek eskuratuko dituzu Victoria Eugenia Antzokian: Prezio bereziak- %40-%60 bitarteko beherapenak, abonu motaren arabera. **Egunak aukeratzeko erraztasuna**- seihileko programazioa etxera bidaliko dizugu, aurretiaz aukeratu ahal dezazun. **Lehentasuna erreserbak**- erreserbak telefonoz egin ahal izango dituzu, honela eserleku onenak aukeratu ahal izango dituzularik.

## ABONUA

Abonu bat erosteko posibilitatea eskaintzen dizugu, hiruhileko gure programazioko bost ikuskizunetarako balio duena. Abonuak, bai musika-emanaldietarako, bai antzerkikoetarako balio du. Zuk ikuskizuna eta eguna aukeratu besterik ez duzu. Gero, telefonoz deitu eta erreserba egina izango duzu. A! eta gainera, hiruhileko SORPRESA BAT eskainiko dizugu!

**Besaulkiak, plateak eta palkuak. 5.000.- pta.**
**Balkoia. 4.000.- pta.**
**Anfiteatroa. 3.000.- pta.**

## TALDE-ABONUA

Lagunekin etorri nahi izanez gero, aukera ona duzu, izan ere sei lagun (edo gehiago) elkartuz gero, prezio berezia izango baituzu. Prezioak ikuskari eta pertsonako:

**Besaulkiak, plateak eta palkuak. 1.000.- pta.**
**Balkoia. 800.- pta.**
**Anfiteatroa. 600.- pta.**

## PREZIO BEREZIA

Gaztea, langabetua edo jubilatua baldin bazara, prezio berezia izango duzu, **800.- pezetako** prezio bakarra antzokiko edozein eserlekurako, dagokizun txartel edo ziurtagiria aurkezte hutsarekin (gazte txartela, langabezi txartela...).

## ESKOLA-TALDEAK

KULTUR UDAL PATRONATUAK, GAZTERI SAILArekin batera, eskeintza berezia egiten die ikastetxe taldeei: **500.- pezeta** ikasleko. Telefonoz ikastetxearen izena eman eta nahi den sarrera-kopurua adieraztea aski izango da erreserba egin ahal izateko.

## FIDELTASUNARI SARIA

Lugaritzen antolaturiko funtzioetara joaten bazara, sarrera gorde! Victoria Eugenia Antzokiko takiletan sarrera hori erakutsiz gero prezio murriztuan **800.- pezeta** eskuratuko duzu sarrera.

## ERRESERBAK EGITEKO GURE TELEFONOA: 48 11 55

### Sarrerak:

Victoria Eugenia Antzokia:

| | |
|---|---|
| Besulkia, palko eta platea | 1.600'- pta |
| Balkoia | 1.200'- pta |
| Anfiteatroa | 1.000'- pta |
| Prezio murriztua | 800'- pta |

| | | |
|---|---|---|
| Antzoki Zaharra: Haur antzerkia | | 500'- pta |
| Lugaritz Kultur Etxea: | Helduen antzerkia | 800'- pta |
| | Prezio murriztua | 500'- pta |
| | Haur antzerkia | 300'- pta |

# ABONATE AL TEATRO

Y benefíciate de las siguientes ventajas: Tarifas más bajas- de 40% a 60% de reducción según el tipo de abono. **Elección libre de fechas** - la programación semestral te será enviada a domicilio para que puedas elegir con antelación. **Prioridad en la reserva** - podrás reservar telefónicamente tu localidad y elegir los mejores emplazamientos.

## ABONO

Te ofrecemos la posibilidad de obtener un abono para 5 espectáculos de nuestra programación trimestral, pudiendo utilizar el abono tanto para la música como para teatro. Solo tienes que seleccionar el espectáculo y la fecha. Con una llamada telefónica tendrás tu reserva. ¡Y además, cada tres meses te guardamos UNA SORPRESA!

**Butaca, plateas y palcos. 5.000 pts.**
**Balcón. 4.000 pts.**
**Anfiteatro. 3.000 pts.**

## ABONO COLECTIVO

Si has quedado en venir al teatro con tus amigos, ¡júntate!, porque a partir de seis personas puedes beneficiarte de una tarifa reducida.

**Butacas, plateas y palcos. 1.000 pts.**
**Balcón. 800 pts.**
**Anfiteatro. 600 pts.**

## PRECIO REDUCIDO

Jóvenes, desempleados y tercera edad, podeis comprar vuestra localidad a precio reducido. Un precio único de **800 pts.** para cualquier localidad del teatro. Recuerda que tendrás que presentar tu carnet-justificante (gazte-txartela, tarjeta INEM...).

## GRUPOS ESCOLARES

En colaboración con el DEPARTAMENTO DE JUVENTUD, los grupos de escolares pueden acceder al precio reducido de **500 Pts.** Basta con notificar telefónicamente el nombre del Centro Escolar y el número de localidades deseadas, para obtener la reserva de entradas.

## PREMIO A LA FIDELIDAD

Si asistes a las funciones programadas en Lugaritz¡ Guarda tu entrada!. Sólo tendrás que presentarla en la taquilla del Teatro Victoria Eugenia para acceder al precio reducido, **800.- pts.**

## NUESTRO TELEFONO DE RESERVAS: 48 11 55

### Entradas:

Teatro Victoria Eugenia:

| | |
|---|---|
| Butaca, platea y palco | 1.600'- pts |
| Balcón | 1.200'- pts |
| Anfiteatro | 1.000'- pts |
| Precio reducido | 800'- pts |

| | | |
|---|---|---|
| Teatro Principal: Teatro infantil | | 500'- pts |
| Casa Cultura Lugaritz: | Teatro adulto | 800'- pts |
| | Precio reducido | 500'- pts |
| | Teatro infantil | 300'- pts |

# EGITARAUA

**9 Abril**

**CONCIERTO PRO LICEO**
**ORFEON DONOSTIARRA**
**"Carmina Burana"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**12 Abril**

**FLACO JIMENEZ**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,30h.

**14 Abril**

**LOS ESPECIALISTAS**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 21,00h.

**15 Abril**

**L'OM**
**"Chiquilladas"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**17 y 24 Abril**

**HIKA**
**"Aguro"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**18 Abril**

**AGRUPACION LIRICA ITSASO**
**"Marina"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**19 Abril**

**AMANCIO PRADA**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**22 Abril**

**BEDEREN 1**
**"Argirik piztu gabe"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**22-23-24 Abril**

**TRAPU ZAHARRA**
**"Tarde de sábado"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**27 Abril - 1 Mayo**

**FIESTAS MUSICALES DE BIARRITZ**
**Homenaje a Pablo Sarasate**
(Palacio de Festivales, Casino Bellevue
e Iglesia Santa Eugenia)

# EGITARAUA

**29 Abril**

**TAUN TAUN - CIA DE TITERES**
**"Lam eta Lorea"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

**4 Mayo**

**MALEVAJE**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 21,00h.

**5 Mayo**

**ANTONIO VEGA**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 21,00h.

**6 Mayo**

**AGERRE TEATROA**
**"Molly Bloom"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**13 Mayo**

**LOS DUENDES**
**"La bella durmiente"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

**4-5 Junio**

**ELS JOGLARS**
**"El Nacional"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**10-11 Junio**

**COMPAÑIA RAFAEL SAN MARTIN**
**"Misterio bufo"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**15-16-17 Junio**

**ACAE**
**"Os dejó la lluvia"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
20,00h.

**22-23-24 Junio**

**LAS VENENO**
**"Air Veneno"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**24 Junio**

**EL DUENDE DEL GLOBO**
**"El encuentro mágico con los duendes"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

